GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA

GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA

2023ko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023-05-25

ENPRESAREN EKONOMIA

EPAIMAHAI ZK.: 4 eta 5 **KALIFIKAZIOA**

DEITURAK _____

IZENA _____

NANa/A

NTa _____

========== LEHEN ZATIA. TEST ERAKO ARIKETA ==========

+ 0,25 puntu erantzun zuzen bakoitzagatik. - 0,10 puntu erantzun oker bakoitzagatik. Erantzun gabeko galdera (edo erantzun bat baino markatu direnean) = 0 puntu.

Ingura ezazu biribil batekin galdera bakoitzaren erantzun zuzena

1. Zuzendaritza Kontseilua honako enpresa edo sozietate bateko berezko organoa da:
   a. Unibertsitate sozietatea.
   b. Banako enpresa.
   c. Sozietate kooperatiboa.

2. Nola deitzen zaio baliabideei etekinik handiena ateratzeko eragile ekonomiko batek duen gaitasunari?
   a. Efizientzia.
   b. Eraginkortasuna.
   c. Onura.

3. Enpresa "sistema" moduan hartuta, zein dira haren ezaugarri nagusiak?
   a. Produktiboa, mendekoa eta antolatua izatea.
   b. Itxia, independentea eta hierarkizatua izatea
   c. Irekia, autoerregulatua, globala eta sinergiaduna izatea

4. Enpresa bat bere buruaren hornitzaile bihurtzen denean, zer gertatzen da?
   a. Atzerako integrazioa.
   b. Aurrerako integrazioa.
   c. *Outsourcing*a edo azpikontratazioa.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA

GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA

2023ko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023-05-25

ENPRESAREN EKONOMIA

5. "430 Bezeroak" kontua honako masa honetan sailkatuko da:
    a. Erabilgarria
    b. Bihurgarria
    c. Finantza amortizazioa.

6. Enpresa barnean "talde informalak" eratzea lotuta dago:
    a. Elton Mayo-rekin
    b. Eredu "fordistarekin" eta "toyotistarekin".
    c. Henry Fayol-ekin

7. Enpresa baten galera-irabazien kontuak informazioa ematen du:
    a. Enpresaren azken ondare garbiaren balioaz.
    b. Ekitaldiaren emaitzaren bolumenari buruzko informazioa ematen du eta, horretaz gainera, irabazi edo galera horren zergatiak zein diren azaltzen du.
    c. Epe laburrean eskatu beharko den diru-kopuruaz, porrot teknikoa saihestu nahi bada.

8. Enpresa batek ez badu hirugarrenekin zorrik, hau gertatuko da:
    a. Aktiboa = Garbia
    b. Aktiboa = Garbia + Pasiboa
    c. Aktiboa + Pasiboa = Kapitala

9. "55 urtetik gorako gizonak, osasun-arazo erlatiboak dituztenak, eta beren familiaz, ingurumenaz eta ekologiaz kezkatuta daudenak" kategoria hauxe izan liteke:
    a. Marketinaren 4 D-etako bat, hots, merkatu-azterketa bateko ezinbesteko prozesua.
    b. Merkatu-azterketan sor daitekeen segmentazioetako bat, biztanleria multzo homogeneotan multzokatzen denean.
    c. Kategoria bat, merkatu-inkesta bat egiten denean puntuaziorik baxuena lortzen dutenei aplikatzen zaiena

10. Zer-nolako zerga da BEZa?:
    a. Zuzen eta proportzionala
    b. Zeharkakoa
    c. Zuzena eta progresiboa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2023ko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023-05-25

ENPRESAREN EKONOMIA

BIGARREN ZATIA. ARIKETA PRAKTIKOAK

TOKOMOCHO enpresak honako ondare-kontu hauek ditu, 2022ko abenduaren 31n itxiak.

Kontuaren kodea eta izena	Kopurua (€)	Kontuaren kodea eta izena	Kopurua (€)
570. Kutxa	300	430. Bezeroak	700
572. Bankuaren k/k	6.000	218. Garraiorako elementuak	12.000
213. Makineria	20.000	410. Zerbitzuak egiteagatik hartzekodun direnak	1.000
217. Informazioa prozesatzeko ekipoak	4.000	160. Epe luzerako zorrak kreditu entitateekin	12.000
400. Hornitzaileak	6.000	510. Epe laburrerako zorrak kreditu entitateekin	6.000
300. Merkataritzakoak	10.000	440. Zordunak	3.000
211. Eraikinak	25.000	100. Kapital soziala	60.000
216. Higigarriak	7.000	431. Kobratzeko merkataritzako efektuak dituzten bezeroak	8.000
112. Lege erreserba	5.000	401. Ordaintzeko merkataritzako efektuak dituzten hornitzaileak	6.000

1. Kalkula ezazu balio hau: (0,5 puntu bakoitzeko)

Aktibo ez-korrontea		
Aktibo korrontea		
	Erabilgarria	
	Bihurgarria	
	Izakinak	
Funts berekiak		
Pasiboa GUZTIRA (korrontea eta ez-korrontea)		

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2023ko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023-05-25

ENPRESAREN EKONOMIA

2. Kalkula ezazu Maniobra-funtsa (0,5 puntu) eta azaldu emaitza (0,25 puntu).

3. Adieraz ezazu nola kalkulatzen diren likideziaren eta kaudimenaren (berme izena ere ematen baitzaio) ratioak (formula) eta kalkula itzazu. (0,25 puntu bakoitzeko).

4. ARLEKIN SL enpresak mozorroetarako makillajeak egiten ditu. Guztira, enpresaren aktiboa 10.000 eurokoa da. Pasibo osoa (Pasibo ez-korrontea + Pasibo korrontea) 7.000 eurokoa da. Balantze honekin, aurreko ekitaldian 2.000 euroko onura lortu du, interesak eta zergak ordaindu aurretik. Ekitaldi honetako zergak 800 euro izan dira eta interesak 500. Honako hau eskatzen da:

(0,75 puntu bakoitzeko)

a) Kalkula ezazu enpresaren errentagarritasun ekonomikoa.

b) Kalkula ezazu finantza-errentagarritasuna.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2023ko DEIALDIA

10/2023 EBAZPENA, otsailaren 9koa

2023-05-25

ENPRESAREN EKONOMIA

5. Inbertsio-talde batek Iruñeko jatetxe berri batean inbertitu nahi du. Bi aukera oso desberdin jarri dituzte mahai gainean: "Juan y Pinchamé" pintxo-taberna bat, ekonomikoagoa eta low-cost erakoa edo "Riquíssssimo", gama handiko jatetxe baterako lokal oso dotore bat. Taulako aurreikuspenekin eta balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera, bietako zein hautatuko du? Merkatuko interes-tasa i=% 5. (1,25 puntu)

Do = Hasierako ordainketa Fi = Kutxako fluxu garbiak aldi bakoitzean.

Inbertsioa	Do	F1	F2	F3
Juan y Pínchame	25.000	5.000	15.000	20.000
Riquíssssimo	60.000	10.000	25.000	30.000

6. Burgel-Kill enpresak hanburgesak saltzen ditu Iruñeko Gaztelu Plazako kioskoan; hanburgesa bakoitzak 5 euro balio du. Kioskoaren errenta 10.000 eurokoa da, soldatak 6.000 eurokoak eta 4.000 euro ordaintzen ditu baimen, aseguru eta lizentziengatik. (zifrak, hilabetean). Hanburgesak Carnes-Frescas-de-Navarra.com-en erosten ditu; bakoitza 3 euro ordaintzen du.

Datu horiek eskuan dituzula, kalkula ezazu zein den enpresaren errentagarritasun-atalasea (itopuntua) eta azaldu labur zer den. (Puntu 1)

Irudika ezazu grafiko batean: (0,5 puntu)